

Altza

Zapatak erostera, Manoloren dendara

“Calzados Z.M. Oinetakoak” Altzako denda ezagunenetakoa dugu. Manolo Garrotek zabaldu zuen duela 25 urte, eta egun alabak ari dira bertan.

Lierni Ezeiza

Altzatar ez direnentzat ere “Calzados Z.M. Oinetakoak” denda aurkitzea ez da batere zaila. Izan ere, Altzatarren artean oso ezaguna da Manolo Garroteren zapata-denda.

Orain dela 50 urte hasi zen Manolo zapatari lanean, Hondarribian. 1978ko arratsalde batean, Altzatik paseoan zebilela, Santa Barbara ermita zegoen lekuan eraikitako lokale-tako bat erostea erabaki zuen. Inguru hori oso gustuko zuen Manolok. Denda zabaldu zutenean, soilik oinetakoak konpontzen zituzten, baina urte-en poderioz, konponketak bigarren mailan geratu dira. Gaur egun aterkiak, poltsak, gerrikoak, maletak eta nola

Oinetakoez gain, aterkiak, poltsak eta abar saltzen dituzte egun

ez, oinetakoak, saltzen dituzte. Dena dela, Hondarribiko denda oraindik ere zabalik dago, eta bertan Manoloren emazte Mari Carmenek egiten du lan. Erretiroa hartzeko garaia duen arren, Mari Carmenek ez du lana utzi nahi.

Alabak lanean

Orain dela sei urte, Manolok erretiroa hartu zuen eta

orduz geroztik bi alabak, Pili eta Loli, dira dendako nagusiak.

Manolok lana utzi zuenean, “Calzados Z.M. Oinetakoak” izena jarri zioten dendari. Hala ere, auzotarrentzat “Zapateria Manolo” da oraindik. Manoloren alaba gazteak, Pilik, dioskunez, aitaren lan egiteko moduak ez du zerikusirik gaur egungoarekin: “Garai bateko

bezeroek, zegoena erosten zuten. Oraingo saltzaileok, ordea, jendeak eskatzen diguna ekarri behar dugu”. Bestalde, merkataritza gune handien gorakadak denda txikiak kaltetu dituela nabarmendu digu Pilik. Dena dela, pixkanaka-pixkanaka, jendea berriro ere betiko dendetara itzultzen ari dela dio Manoloren alabak.

Eta Manoloren bilobek, hau da Pili eta Loliren seme-alabek, gustuko al dute zapaten mundua? Pilik esan digunez, berari gustatuko litzaioke bere alabak zapata-dendan lan egitea. Bestalde, Loliren semea ia egunero ibiltzen dela zapata-dendan bazterrak nahasten, mailuarekin eta bestelako tresnekin. Litekeena da, beraz, Altzan datozen belaunaldiak ere Garrotetarren dendan oinetakoak erosten jarraitzea.




Eli Gorostegi

Manoloren txokoa

Dendaren itxura ere aldatuz joan da urteen joan-etorriarekin. Bost urtean behin berrikuntzak egiten dituzte, baina bada denda ireki zenetik ukitu ez duten txoko bat. Manolok txoko horretan zapatak konpontzen ohi ziren eta leku hori dagoen bezala mantentzea nahi du. Oraindik ere, noizean behin bertan aritzen da lantxoak egiten.



Arriberri, 7. ALTZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxeoa eta Altza-Politikoldegiaren ondoan
eta autobusez bazatuz, hobe! Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA